

IKUSMIRAN¹²

Nafarroa Garaiko langileriaren
lan eta bizi baldintzak

2022ko AZAROA

12

Ikusmiran 12 | 2022ko azaroa

Nafarroa Garaiko langileriaren lan eta bizi baldintzak

Bilatzailea

SARRERA	5
ONDORIO NAGUSIAK.....	6
PREKARIETATE INDIZEA	8
ERRETIROA	8
POBREZIA ARRISKUA NAFARROA GARAIAN.	10
ABERASTASUNAREN BANAKETA	13
SOLDATAK.....	14
EROSAHALMENA	16
ETXEBIZITZA	17
LAN MERKATUA – ENPLEGUA	20

SARRERA

Eskuartean duzuen txostenaren xede nagusia 2022.urteko nafar langileriaren lan eta bizi baldintzen azterketa egitea izan da. Hori dela eta, *Nafarroa Garaiko langileriaren lan eta bizi baldintzak* izendatu dugu eskuartean duzuen 12.ikusmiran-a. Datuen azterketarekin hasi aurretik, gure lanean eragina izan duten hiru aipu egin nahi ditugu. Izan ere, datu batzuk agertzeko zailtasunak topatu ditugu, 2020.urtean COVID19ak bizkortutako sindemiak, herritarren bizitzak goitik behera zeharkatzeaz gain, eredu ekonomiko kapitalista ere baldintzatu baitzuen.

BAT

Azken bi urteetako errealitatea datuetan islatzeko ezintasunak izan ditugu, erakunde ofizialek maiztasun txikiarekin argitaratzen dituztelako hainbat datu zein estatistika. Ondorioz, konplexua den errealitatearen argakia osatzeko garrantzitsuak diren hainbat datu 2020.urtera arte besterik ez daude eguneratua (INE-ren soldata egiturari buruzko inkesta, esaterako).

Era berean, Nafarroako Gobernuak lan harremanen egoera erreala ezagutzeko argitaratzen dituen datuak ez-nahikoak direla salatu behar dugu. Izan ere, soilik indarrean dauden hitzarmenen datuak eskaintzen dizkigute, ez luzapenean daudenenak. Ondorioz, langileon estaldura tasa ezin dugu ezagutu. LAB sindikatuak Nafarroako Gobernuari maiz egindako eskaera dugu hauxe.

BI

Bestetik, eskuartean ditugun datuak tentu handiz aztertu behar ditugu, hainbat sektore ekonomiko pandemiak eragindako ia erabateko geldialditik hazten ari baitira. Kasu batzuetan 2020ean izango zuten egoera naturalera etortzen, baina hazkunde fase gisa aurkezten zaiguna.

Hazkunde aurreikuspen oso potenteak egiten ari dira, pandemian geldituriko ekonomia suspertzea espero zelako eta hori suspertzera zuzenduriko politika publiko eta diru funtsak bideratu zirelako, zabalkunde fase baten ikuspegitik. Horrela, 2020.urteko geldialdiaren ondoren, 2021.urtea errekupeazioaren urtea izan zen. Errekupeazio hori, ordea, ezin dugu ulertu ekonomiaren berezko joera bezala, baizik eta ez-ohiko egoera baten "normalizaziozat". Zentzu horretan, eredu ekonomikoaren bilakaera aztertzeko, maiz 2019ko datuetara jo behar izan dugu, joera errealak ezagutzeko.

Gerraren ondoriozko krisia etorri denean, aurreikuspenen jaitsiera edo hazkundearen moteltzea gertatzen ari da. Nagusitzen ari den sentazioa, ordea, jaitsiera hainbesterainokoa ez dela da.

Bada, hazkunde ekonomikoa %2,9 izan arren, egindako aurreikuspenen oso azpitik dago. Gertatzen ari dena da, geldialdi ekonomiko baten biharamunean, non asumitu zen ekonomia kolpetik gelditzea eta ondoren bere kabuz errekupeatuko zela, ekonomia 2019.urteko baloreetara bueltatzen ari dela. Horregatik, gaur egungo egoerari ez zaio aurre egiten ari atzeraldi ekonomikoaren ikuspegitik.

Zentzu horretan, 2023ak ekonomiaren bilakaera ezagutzeko argakia erreala emango digula. Ekonomiaren eguneratzea, gerraren ondorio zein iraupenak baldintzatuko du.

HIRU.

Hainbat koordenada aldatu dira. Jendartean hainbeste aldaketa jazo dira, Estatuak merkatuak edota elementu estrategikoen inguruko aliantzak aldatzeko abagunea izan duten. Aldaketa hauen eragina estatu barnean edota estatuen artean zer nolakoak izango diren ez dugu ezagutzen, ordea. Dena den, aldaketa geopolitikoek aitzakia eman dute produktu batzuen eskasia justifikatzeko, prezioak igotzeko edota lan baldintzatan eragiteko.

Egun hartzen ari diren hainbat neurri, ez dira soilik inflazioari aurre egiteko. European panorama txarra aurreikustearen ondorioz, langile klasearen sakrifizioan oinarritzen diren politika ekonomiko zehatz batzuk aplikatzera zuzenduta daude. Gaur egun, ordea, ezin dugu esan Europa atzeraldi ekonomiko batean sartuko dela, ez ditugu datuak hori baieztatzeko, baina aplikatzen ari diren politiken norabideak horretara garamatza. Dena den, izango dugu aukera hurrengo Ikusmiran argitalpenetan zehaztasunetan sartzeko.

Goazen harira!

ONDORIO NAGUSIAK

Ekosozialismoa, feminismoa, demokratizazioa eta nazio garapena ardatz izango dituen Euskal Esparru Sozioekonomikoa eratzea proposatu genuen Programa Sozioekonomikoan.

Prekarizazio prozesuari aurre egin eta bizitza bizigarriak helburu, enplegua, zaintza eta ondasunen banaketa kontutan hartuko duen proposamen integrala ere kaleratu genuen, banaketa hirukoitza gisa ezaguna egin dena, eta bide horretan aurrera egiteko proposamen zehatzak.

Bada, 12. Ikusmiran honetatik osatu dugun nafar langileen lan eta bizi baldintzen argazkitik ondorioztatu dezakegu Euskal Esparru Sozioekonomikoa klase lehentasuna izateaz gain, Euskal Herri osoaren garapen iraunkorrerako ezinbestekoa ere badela. Lurralde eremu bakoitzaren errealitate politiko, instituzional, sozial zein sindikaletik garatuko den ibilbidea izango dela argi dugu, baita langileok hori horrela izan dadin gure ekarpena egitea funtsezkoa izango dela ere. Izan ere, nekez egin dezake aurrera herri batek, bertako langileriak ez badu bizitza duin baterako gutxieneko baldintzarik. Gauza bera esan dezakegu, gure herrian sortzen den aberastasuna gero eta modu desorekatuagoan banatzen bada, datuek berretsi duten bezala, kapitalaren errenten mesedetan eta langile klasean arrakalak sortuz.

Nafarroa Garaiko langileen lan eta bizi baldintzen begirada osatu batek argi gorriak piztera eraman behar gaitu. XXI. mendearen hasieratik krisi ekonomikoak kateatzen ditugu eta patu sailhestezin gisa aurkezten dizkigute langileok eta herri sektore guztiok ustez egin beharreko esfortzuak. Bizi dugun kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka honetan, begiradaren ikuspegi okerrak benetan gertatzen ari denaren gaineko ikuspegia erratzera eraman gaitzake. Gure ikusmiran bizitzaren sostengua dugunok, bizitza duinerako gutxieneko mugak aztertu behar ditugu. Enplegua lizeak gure jendartearen iruditegian pobrezia irhes egiteko status nahikoa bezala ezarri izan da, baina datuek argi erakusten digute gaur gaurkoz hori ez dela nahikoa.

Nafarroa Garaiko bi herritarretik bat bizitza duin baterako diru sarreren kopuruaren azpitik dago.

- 25 eta 64 urte bitarteko herritarren %50,3a egoera prekarioan bizi da, lan duinik gabe eta diru-sarrera ez-nahikoekin. 178.175 nafar langabezia egoeran, egoera inaktiboan edo 1400 eurotik beherako diru sarrerekin bizi da.
- Era berean, pentsiodunen %40ak 1000 eurotik beherako pentsioa jasotzen du. Eskuarlean ditugun datuekin kopuru zehatza ezin badugu kalkulatu ere, 1200 eurotik beherako pentsioa jasotzen dutenen kopurua oraindik eta altuagoa izango dela pentsa daiteke. Beraz, prekaritate egoeran bizi diren nafarrak gehiago dira.
- Afiliazio datuetan oinarrituta, kontratazioaren bilakaera aztertu dugu eta kontratu mugagabeak igo direla berretsi dugu. Hala ere, gaurkoan enpleguaren kalitatean jarri behar dugu azpimarra, kontratu mugagabeek ere ez baitute prekaritate indizea zuzentzea lortu.

Datu hauen bidez ikus dezakegu, langabezia eta kontratazio datuetatik harago, bizitza duinerako baldintzak eskuratzeko ardatzean arreta jarri behar dela. Bistan denez, prestazioek, soldatek eta pentsioek ez dute herritarren erdia diru sarrera nahikoen mugaren gainetik kokatzen. Merkatuak ez du bere burua erregulatzen, aberastasuna metatzera eramaten du, besteak beste desjabetuz edo pobretuz.

Argazki finko eta estruktural honek bizi dugun egoeraren bidegabekeria seinalatzen du. Kezka biderkatzen dute, ordea, joerek. Esan bezala, azken 15 urtetako krisi ekonomikoak nahikoa ez eta sakoneko arazo ekonomiko eta sozialak areagotzen ari den egoera bizitzen hasi besterik ez dugu egin. **Nafarroa Garaian sortzen den aberastasuna ez da modu orekatuan banatzen, kapital errenten mesedetan, eta bizitzaren garestitzea diru-sarrera baxuagoko bizi unitateetan eragin kaltegarriagoa izaten ari da.**

- Nafarroako pobrezia arrisku tasa %21,3koa da, hau da, nafarren %21,3ak pobrezia mugaren azpiko diru-sarrerak jasotzen ditu (urtean 11.549€ edo gutxiago).
 - Nafarroako Errentaren Estatistika datuak aztertuz, ondorioztatu ahal izan dugu pobrezia modu bortitzagoan jotzen dituela migratzaileak, ikasketa baxuagoak dituztenak edota 16 urtetik beherakoak.
- Emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala izugarria eta estrukturala da. 1.000 eurotik beherako pentsioa kobratzen duten 3tik 2 emakumezkoak dira, esaterako.
- Kontsumorako prezioen indizeek urte eta erdi honetan bizi izan duten gorakada bortitzak eragin oso sakona izan du langileen eta herritar xumeen eros ahalmenean. Ikusi dugun bezala populazioaren erdiak diru sarrera mugatuak ditu eta haientzat funtsezkoak diren produktu edo gastu eremuetan eman da igoerarik handiena.

- Prezioen gorakadaren ondoren, egiturazko esparru batzuetara iritsi dira igoerak: etxebizitza. Etxebizitzaren prezioa %6,2 garestitu da azken urtean, alokairuetan igoera jazo da eta hipoteken gastuen gorakada handia. Honek guztiak, diru sarrera mugatuak dituzten pertsona, kolektibo edo bizi unitateak pobrezia egoerara bultzatu ditzakete.

Testuinguru honetan iristen dira sakrifizio edo esfortzu deialdiak instituzioetatik eta irabaziak pilatzen ari diren enpresetatik. Lan baldintzetan eta soldatetan erasoak pairatzen ari gara eta datuak datu enpleguaren kalitatea ezbaian dagoela adierazten digute, gaur gaurkoz, enpleguak ez baitu bermatzen diru-sarrera nahikorik.

- Azken urtean kontratu mugagabeen igoera gertatu da, baina Nafarroa Garaiko behin-behinekotasun tasa Europar Batasuneko altuenen artean dago, %28,27a, EB-aren batezbestekoa %14,5ean dagoen bitartean.
- Emakumeak dira behin behinekotasun eta partzialtasun tasarik altuenak dituztenak.; beraz, enplegu prekario zein ezegonkorragoak.
- Era berean, kezkatzekoa da emakumeen (%10,67) eta 20-24 urte arteko gazteen langabezia tasa (%20,20), Nafarroa Garaiko langabezia tasaren gainek (%8,99)

PREKARIETATE INDIZEA

Nafarroako 25 eta 64 urte arteko bi langiletik bat prekariedade egoeran bizi da

Prekarietatea eredu kapitalistak kronifikatu duen errealitatea da, lan eta bizi baldintzak okertu eta norbere bizi proiektua modu duinean garatzeko ezintasuna eragiten duena.

Testuinguru honetan, langabezia datua modu isolatuan aztertu baino, prekariedade zentzu zabalean aztertzea egokiagoa dela iritzi dugu. Nafarroa Garaiko Prekariedade Indizea neurtu eta lortu dugun argazki nagusia, hauxe litzateke: Nafarroako 25 eta 64 urteko biztanleriaren %50,3a prekariedade egoeran bizi dela izan da, lan duinik gabe eta diru-sarrera ez-nahikoekin. Hego Euskal Herriko prekariedade indizea (%53,52) baino baxuagoa. Egoera, ordea, ez da hobe, HEH-an baino pentsionista gehiagok jasotzen baitute 1.000€ baino pentsio baxuagoa, prekariedadearen indizea handituz.

Indizea aztertzeke, Nafarroa Garaian langabezian dauden herritarrak (SEPE-ren arabera, 2022ko urrian 31.275), egoera ez-aktiboan daudenak (2022ko 3.hiruhilabeteko Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestaren arabera 57.500 pertsona) eta 1.400 euro baino soldata baxuagoa jasotzen duten herritarrak (INE-ren soldata egituraren 2020.urteko Inkesta) hartu ditugu kontutan.

Europako Karta Sozialak Lanbidearteko Gutxieneke Soldata (LGS) herrialde baten soldataren batezbestekoaren %60a izan beharko lukeela gomendatzen du. Kopuru hau Hego Euskal Herrian 1.400 eurokoa da, 14 pagatan banatuta. Programa Sozioekonomikoan ere horrela jaso genuen, enplegua, zaintza eta ondasuna banatzeko lehentasunen artean, gehienez 30 orduko enplegua aldarrikatzearekin batera. Beraz, LAB-en lehentasunezko aldarrikapena delako hartu dugu 1.400 eurotako erreferentzia.

Nabarmendu behar dugu, egoera ez-aktiboan dauden Nafarroa Garaiko 57.500 herritarren artean, 47.000 direla norbere etxeko lanetan dabilzanak, gehienak emakumeak, inolako aitortza sozial edota ekonomikorik gabe.

8

ERRETIROA

Nafarroa Garaiko pentsiodunen %40ak 1.000€ baino baxuagoa den pentsioa jasotzen du

Bidea nondik abiatzen dugun jakitea ezinbestekoa da. Hori dela eta, jarraian, egungo pentsio sistemari buruzko hainbat datu:

- Nafarroa Garaian 129.478 pentsionista daude alta emango, orotara.
- Hileko batezbesteko pentsioa: 1.367,96 euro dira
- Pluripentsionistak, pentsiodunen %9a dira (pentsio bat baino gehiago jasotzen dutenak)
- Nafarroako pentsiodunen %40ak 1.000€ baino baxuagoa den pentsioa jasotzen du

NAFARROA GARAIO PENSIONISTA KOPURUA, PENSIOEN TRAMOEN ARABERA (2021)			
	1.000€ edo gutxiago	1.000€ eta 2.800€ artean	2.800€ baino gehiago
Guztira	%40,0	%53,7	%6,2


Iturria: Espainiar Estatuko Gizarte Segurantzak

Pentsio arrakala egiturazkoa da

Pentsioetan ere, gizon eta emakumeen arteko arrakala estrukturala dela berresten dute datuek. Indarrean dagoen sistemak erreproduzitzen du pentsio arrakala eta ez du neurririk aurreikusten zor patriarkarra kitatzeko.

- 1.000€ azpiko pentsioa jasotzen duten pentsionista guztien artean, %65,41 emakumezkoa da
- Pentsioa jasotzen duten emakumeetatik, %54,5ak jasotzen du 1.000 euro azpiko ordainsaria. Gizonezkoen artean, aldiz, %26,7ak

1.000€TIK BEHERAKO PENTSIONISTEN BANAKETA SEXUAREN ARABERA



Iturria: espainiar estatuko Gizarte Segurantzza

Pentsionistek, prekarietatearen indizea zabaltzen dute


Arestian aipatu bezala, Nafarroa Garaiko pentsionisten egoerak, prekarietatearen zakua handitu egiten du, 65 urtetik gorako herritarren bizi baldintzen inguruko datuak agertuz. Pentsionisten %40ak 1.000 euro azpiko pentsioa kobratzen duela azpimarratu dugu. Zorritzarrez, 1.000€ eta 2.800€ arteko pentsioa jasotzen duten pentsiodunen tramoan, kopuru handi bat 1.000 eurotik gertu egongo dela pentsa daiteke, datu zehatzik eskuratu ezin badugu ere. Beraz, pentsa liteke Nafarroa Garaiko pentsiodunen erdiak, 1.400€ baino baxuagoa den pentsioa jasotzea, bizitzari modu duinean aurre egiteko ezintasun nabarmenarekin.

Pentsioak eta erosahalmena

A Abenduko urtearteko KPI-aren zenbatekoa jakin arte pentsioen eguneratze zehatza zenbatekoa izango den ez dakigun arren, aegin dezakegun hubilpena azken emaitzatik oso gertu egongo da. Azaroan KPI estatala %6,8ean kokatu da (pasa den hilabetean baino 0,5 behera eginez), uztaillean izan zuen maximotik behera, baina oso altu mantentzen dela ahaztu gabe.

2023. urteko pentsioak KPI-aren urtearteko batezbestekoarekin eguneratuko dira, KPI-aren azaroako datua ezagututa, %8,64a, hain zuzen ere. Abenduko urtearteko KPI-a baino altuagoa izan arren, urte osoan zehar KPI-ak izan duen bilakaera kontutan hartuz (horretarako, KPI metatua aztertu dugu), pentsiodunek erosahalmenean galera izango dute. Galera hori 2011. urtetik pilatzen ari da, galdutako erosahalmena errekupeartzeko inolako konpentsazio neurririk gabe.


PENTSIONAK ETA EROSAHALMENA



Iturria: guk geuk egina, espainiar estatuko Gizarte Segurantzza eta INERen datuekin

Grafikoan ikus daitekeen modura, KPIa urte batzuetan pentsioen eguneraketa baino altuago kokatu da eta alderantziz. 2022ko azaroko KPI-aren datuak eskuetan, aurreikus daiteke hurrengo urteko pentsioen eguneraketa abenduako KPI-aren goitik kokatuko dela.

PENTSIONEN EGUNERAKETA ETA KPI-A



Urte osoan zehar metatutako KPI-aren bilaera aztertuta, aldiz, argi ikus daiteke pentsiodunek erosahalmenean galera izan dutela, urtero 2011.urtetik. Zentzu berean, 2023.ean ere galera izango dute.

POBREZIA ARRISKUA NAFARROA GARAIAN.

2020. urtean pobrezia arrisku tasa¹ Nafarroa Garaian %21,3a izan zen; Nafarroa Garaian 140.835 herritar pobrezia arriskuan dauden. 2012 eta 2020 urteen artean 0,3 puntu handitu da pobrezia tasa, tartean gora beherak egon badira ere.

Azken datu ofiziala 2020koa da eta egungo pobrezia arriskuaren argazki erreala osatzeko azken bi urteetako bilakaera ezagutzea ezinbestekoa da. Izan ere, egoera sozioekonomiko ezegonkor honetan, non oinarrizko elikagai zein produktuak garestitu diren, egoera zaugarrian dauden kolektiboak inpaktu zuzena jasan dute, bizi baldintzak nabarmen okertuz.

POBREZIA ARRISKUAREN TASA													
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Nafarroa Garaia*	-	-	-	-	21,0	22,3	24,2	23,2	22,6	21,7	21,3	21,2	21,3
EU 27	-	-	16,5	16,9	16,9	16,8	17,3	17,4	17,5	16,9	16,8	16,5	17,4
Danimarka	12,0	13,4	13,4	12,0	11,9	11,8	11,8	11,9	11,9	11,7	12,8	12,5	12,1
Espainiako Est.	21,2	21,3	21,3	21,4	20,9	19,9	22,1	21,8	22,1	22,2	22,2	21,1	21,7
Finlandia	13,6	13,8	13,1	13,7	13,2	11,8	12,8	12,4	11,6	11,5	12,0	11,6	12,2
Frantziako Est.	13,3	13,8	13,9	14,5	14,6	14,3	14,1	13,9	14,4	13,6	13,3	13,9	14,3
Errumania	24,3	23,0	22,1	22,6	22,8	22,9	24,9	25,7	25,7	24,2	24,5	24,9	24,6

Iturria: INE (Bizi baldintzei buruzko inkesta. AROPE adierazlea). Eurostat

1 Pobrezia arriskuaren tasak herrialde batean bere diru-sarrera garbiak pobrezia mugatik behera jasotzen dituzten pertsonen ehunekoa neurtzen du. Pobrezia edo gizarte-bazterketaren arriskuan dagoen biztanleria honako egoera hauetakoren batean dagoena da: 1) Pobrezia-arriskuan (diru-sarreraren % 60 kontsumo-unitateko); 2) Gabezia material larria dagoenean (gutxienez 4 kontzepturekin, 9ko zerrenda batean); 3) Enplegurik gabeko edo enplegu-intensitate txikiko etxeen unitateetan (lan egiteko adinean zeuden kideek erreferentziako urtean beren lan-potentzial osoaren % 20 baino gutxiago lan egin zuten etxeen unitateetan).

Europako batz bestekoaren (%17,4) gainetik kokatzen da Nafarroa Garaia, pobrezia arriskuari dagokionean. Era beran, pobrezia tasa altuena duten herrialdeetatik gertuago dago, pobrezia tasa baxuagoa duten herrialdeetatik baino.

POBREZIAK EBRO ARROAN METATUTA JARRAITZEN DU

Pobrezia arriskua ez da homoginoa Nafarroa Garaian ezaugarri soziodemografiko, sozioekonomiko eta kulturek baldintzatzen dute. Nafarroan, Ebro arroan metatzen da pobrezia tasarik altuena, Nafarroa Garaiko pobrezia arrisku tasaren gainetik.


POBREZIA ARRISKU TASA NAFARROA GARAIA (2020)	
Eskualdeak	%
Tuterako Erribera	%29,8
Ebroko Erribera	%28,9
Arga eta Aragoiko Erribera	%26,9
Lizarra	%23,4
GUZTIRA	%21,3
Tafalla – Olite	%20,3
Nafarroako erdialdea	%19
Pirineoak	%18,5
Zangotza	%17,7
Baztan-Bidasoa	%17,2
Nafarroa iparraldea	%15,9

Iturria: NASTAT, errentaren estatistika

Pobrezia arriskua migrazioari eta ikasketa maila baxuei lotuta


Nafarroan Errentaren Estatistika publikatu dute eta 2020 urteari dagozkion hainbat datu eskuratu ditugu, bertako errealitatea modu zehatzagoan aztertzeko aukera baliatu dugu. Herrialde honetan, pobrezia muga 11.549€-tan kokatzen da, alegia, urtean 11.549€ baino gutxiago kobratzen duten herritarrek pobrezia arriskuan daude (kontsumo-unitate bakoitzeko urteko diru sarreraren medianaren %60 da)

Adina eta sexua aztertzen badugu, 16 urtetik beherako herritarren artean, pobrezia tasa %30ekoa da. Arrisku tasaren proportziorik altuena 16 eta 44 urte artean kokatzen da. Alde handirik ez egon arren, gizonezkoena altuagoa da (gizonen %21,3a dago pobrezia arriskuan; emakumeen kasuan, aldiz, %20a).



Pobrezia arrisku tasa nazionalitatearen arabera aztertuz gero, modu oso nabarmenean egiten du gora espainiar estatutik kanpoko nazionalitatea dutenen portzentaia (Europar Batasuneko nazionalitatea dutenen pobrezia arrisku tasa %43,5a den bitartean munduko gainerako nazionalitateen pobrezia arrisku tasa %65,3ra igotzen da).


POBREZIA ARRISKU TASA, NAZIONALITATEAREN ARABERA NAFARROA GARAIA, 2020



Iturria: NASTAT (Errentaren estatistika)

Lorturiko hezkuntza maila kontutan hartuz, lehen hezkuntza edo baxuagoko maila duten herritarrek dute pobrezia arrisku handiena, pobrezia arrisku tasa kasu honetan %35,3koa baita. Beste muturrean kokatzen da hezkuntza maila "altuagoak" dituztenen tasa; modu honetan, goi mailako hezkuntza titulua duten herritarren pobrezia tasa %10,2ra murrizten da.

POBREZIA ARRISKU TASA, SEXUA ETA LORTURIKO IKASKETA MAILAREN ARABERA. NAFARROA GARAIA 2020



Iturria: NASTAT (Errentaren estatistika)

Eskuartearen ditugun datuak gurutzatuz gero, Nafarroa Garaian 2020.urtean pobrezia arrisku tasan zeuden herritarren gehiengoak hezkuntza titulu baxuena zuten herritarrak zirela, gehiengoak espainiar estatutik kanpoko nazionalitatearekin eta 16 urtetik beherakoak. Pobrezia tasarik altuena Ebro arroan kokatzen da eta hori ere ez da kasualitatea, eremu horretan nekazaritzan besteren kontura lan egiten duten langileen kolektibo garrantzitsua baitago, langile migratzaileen presentzia handiarekin eta lan baldintza kaxkarragoekin.


ABERASTASUNAREN BANAKETA

Herrialde baten sortzen den aberastasuna neurtzeko egun nagusiki erabiltzen diren adierazleen inguruko eztabaida larrialdi klimatikoak ziurrenik bizkortu egin du. Paradigma aldaketa horri loturik ulertzen dugu ere aberastasunaren banaketa ere bai. Hori dela eta, herrialdeen arteko zein herrialde barneko ezberdintasunak ezagutzeari azterketa atal honen erdigunean kokatzen dugu.

Beraz, herrialde batean sortzen den aberastasuna herritarren artean nola banatzen den aztertu ohi dugu; horretarako, GINI indizea eta S80/S20 ratioak aztertuz batetik, eta soldatek BPG-ean duten pisua, bestetik.

Soldatek BPGreko duten pisua galtzen ari da

Azken urteetako joera mantentzen da eta soldatek BPG-arekiko duten pisua jaisten ari da kapitalaren errentaren mesedetan. 2021. urtean Nafarroa Garaiko BPG-aren %44,38a zen soldatetatik eratorria, Europako 27 herrialdeen batezbestekoaren (%47,77) oso azpitik. KPI-aren gorakadaren araberako soldata igoerak ez denez aurreikusten, beheranzko joera mantenduko eta aldea handitu daitekeela dela pentsa daiteke.



Soldata arrakalak langileen arteko ezberdintasunak areagotzen ditu, klase izaeran edota elkartasunean zauriak sortzeraino. Kapital errenta eta lan errenten arteko soldata arrakalan jartzen du arreta datu honek, Hego Euskal Herrian sortzen den aberastasuna ez baita langileen soldaten bidez birbanatzen nagusiki; beraz, kapital errentetara bideratzen da aipatu aberastasunaren zati handia. Hortaz, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka, soldatatan duen isla argiki ikus dezakegu.

Aberastasunaren banaketan desorekak

GINI indizeak herrialde batean dagoen errentaren banaketan dauden desberdintasunak neurtzen dituela. (Orik gero eta gertuago, errentaren banaketa gero eta uniformeago eta 100 neurriak, talde batek herrialde osoaren errenta pilatuko luke).

Nafarroako GINI indizea 28,7koa zen 2020.ean, aurreko urtea baino altuagoa. Beraz, errentaren banaketan gero eta desberdintasun handiagoak daude.

2021. urtean errenta altu eta baxuenaren arteko aldeak handitu egin dira.

S80/S20 ratioak errenta altuena duen biztanleriaren %20ak lortutako batez besteko errentaren eta errenta baxuena duen biztanleriaren %80ak lortutakoaren arteko erlazioa islatzen du S80/S20 ratioak. Muturreko bi errealitateen arteko erlazioa adierazten digu.

Nafarroa Garaian 2021. urtean errenta altu eta baxuenaren arteko aldeak handitu egin dira. S80/S20 ratioa 5,1ean dago (2020ean baino 0,7 puntu goitik). Beraz, errentaren banaketa desorekatuak, gutxien eta gehien dutenen arteko arrakala handitzen eta bizkortzen ari da. Ikusteke dugu joera honen bilakaerak hartzen duen norabidea.

Europar Batasunarekin alderatuz, desberdintasunak pareko daude, halaber, desberdintasun gutxien dituzten herrialdeetatik goiti.

SOLDATAK

Soldata arrakala egiturazkoa da

BATEZBESTEKO SOLDATA GARBIA, GENEROAREN ARABERA (NAFARROA GARAIA, 2020)			
	GIZONAK	EMAKUMEAK	ALDEA
Nafarroa Garaia	31.317,91	24.047,13	-7.270,78
Hego Euskal Herria	32.645,74	26.442,2	-6.203,54

Iturria: INE, soldata egiturari buruzko inkesta

Soldaten Egiturari buruzko Inkestatik lortutako azken datuen arabera, 2020. urteari dagokionez, Nafarroan urteko batez besteko irabazia 31.317,91 eurokoa izan zen gizonentzat eta 24.047,13 eurokoa emakumeentzat.

Horrek esan nahi du emakumeek, batez beste, gizonek baino 7.270,78 euro gutxiago kobratzen dutela urtean. Bestela esanda, emakumeen soldata % 30,2 igo beharko litzateke gizonenarekin parekatzeko.

Gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala errealitate konplexua da, eta hainbat arrazoi ditu, baina guztiak, funtsean, honako bi diskriminazio-kategoriatan laburbiltzen dira:

- Zeharkako soldata arrakala; horren barruan sartzen dira ezegonkorrek diren eta gutxien baloraturiko enpleguak emakumeei esleitzeko joerak ahalbideratzen dituzten egoerak. Horren ondorioz, emakumeek presentzia handiagoa dute aldi baterako eta lanaldi partzialeko enpleguetan.
- Zuzeneko soldata arrakala, zeinak lan egindako ordu bakoitzeko bi generoen arteko soldata arrakalari erreferentzia egiten dion.

Soldata arrakalaren bilakaera, zenbakitan

Langileen arteko soldata arrakala egiturazkoa da, sistema kapitalistak berak sortu eta iraunarazten duena, langileen arteko ezberdintasunak areagotu eta jendartea dualizatzeko. Generoaren arabera soldata arrakala nabarmena izan arren, adina, nazionalitatea, pertzentil2 edota lan kontratuaren arabera ezberdintasunak handitzen ari dira.

BATAZBESTEKO SOLDATA ETA HORREKIKO ALDEA HEGO EUSKAL HERRIA (€/URTEA)													
	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013	2.014	2.015	2.016	2.017	2.018	2.019	2.020
BATAZBESTEKO SOLDATA	23.342,74	23.657,71	23.824,88	24.384,92	23.784,38	23.836,93	24.700,78	24.863,98	25.468,38	26.329,79	26.364,75	27.493,93	27.995,96
BATAZBESTEKO SOLDATA OROKORREKIKO ALDEA													
Pertzentil bajeuna	-14.306,05	-15.103,87	-14.720,23	-15.434,27	-15.555,92	-15.722,75	-15.337,23	-16.143,34	-16.078,26	-16.270,56	-15.815,97	-17.422,95	-17.459,83
Pertzentil altuena	14.479,96	15.140,93	15.131,88	15.833,60	15.963,32	16.650,54	16.295,67	17.259,22	17.919,94	17.468,73	17.330,84	18.049,41	18.614,00
EMAKUMEAK													
Batazbestekoa	-4.129,98	-4.170,16	-3.897,73	-4.407,68	-4.322,25	-4.472,50	-4.537,68	-4.300,90	-4.522,38	-4.431,22	-3.667,16	-3.765,11	-3.948,83
Pertzentil bajeuna	-15.892,66	-17.171,72	-16.520,34	-16.993,91	-16.935,05	-17.787,82	-17.409,98	-18.177,59	-17.942,13	-17.787,75	-17.388,04	-19.298,48	-19.679,80
Pertzentil altuena	8.881,21	9.941,75	9.811,31	10.208,55	10.035,08	10.394,14	10.214,16	12.181,68	11.853,51	11.530,55	12.107,85	13.090,76	12.434,41
GIZONAK													
Batazbestekoa	3.293,01	3.098,06	3.157,61	3.449,56	3.848,42	4.011,22	3.958,96	3.863,39	3.630,61	3.369,31	3.181,37	3.070,97	3.321,95
Pertzentil bajeuna	-9.903,80	-9.874,37	-12.619,52	-11.255,01	-11.667,55	-12.228,58	-11.433,82	-11.991,86	-12.754,18	-12.849,67	-11.574,73	-13.378,99	-13.267,28
Pertzentil altuena	16.978,60	18.023,63	18.257,08	18.987,76	20.045,22	20.916,34	20.852,86	20.829,05	21.450,21	20.597,28	20.781,91	21.162,31	22.216,88
ADINAREN ARABERA													
25-34 urte	-5.776,16	-5.820,51	-4.157,85	-4.652,75	-4.396,94	-4.775,88	-3.184,24	-3.378,94	-2.936,28	-3.134,92	-1.613,70	-952,68	-106,88
35-44 urte	30.061,90	30.898,64	29.581,97	30.006,26	29.099,48	29.938,17	28.639,50	28.505,02	29.269,56	30.091,31	28.758,12	29.204,86	28.109,14
45-54 urte	-4.241,79	-5.306,42	-2.831,98	-2.779,47	-2.775,98	-3.393,99	-1.919,50	-1.218,40	-1.242,84	-1.219,09	-67,41	1.148,83	2.583,72
55 urte edo +	26.660,68	28.180,59	25.494,58	26.667,76	26.193,47	26.348,44	27.988,39	27.428,83	27.346,24	28.673,85	28.103,85	27.916,74	26.577,45
KONTRATU MOTAREN ARABERA (Batazbestekoa)													
Mugagabea	-4.190,06	-3.460,74	-1.879,15	-1.567,53	-1.277,14	-756,09	439,06	1.420,69	1.976,70	2.384,69	2.962,05	4.603,57	5.203,45
Behin behinekoa	-10.335,43	-9.854,17	-9.381,59	-8.298,38	-8.720,36	-6.830,97	-7.954,38	-7.705,88	-5.064,12	-6.135,59	-4.269,88	-5.058,09	-2.930,37
NAZIONALITATEAREN ARABERA													
Estatu Espainiarra	-3.042,97	-2.492,94	-660,72	-353,65	30,02	804,02	1.851,59	2.791,99	3.444,58	3.807,78	4.384,50	6.266,78	6.239,94
Estatu Espainiarretik kanpo	-10.009,35	-9.101,00	-9.067,26	-8.427,62	-8.972,13	-8.670,39	-7.715,21	-6.613,60	-6.577,96	-7.121,58	-3.758,45	-2.887,86	-1.239,87

Iturria: INE. Soldatari buruzko inkesta

Taulan Nafarroa Garaiko batezbesteko soldata eta horrekiko aldea zenbatu dugu, horretarako aldagai ezberdinak kontutan hartuz. Alderaketaren bilakaera egin dugu, 2008tik 2020.urtera arteko azterketa eginez (INEk egiten duen soldata egiturari buruzko inkestaren azken emaitzak 2020koak dira).

- Pertzentilak aztertuz gero, Nafarroa Garaian diru-sarrera baxuenak eta altuenak dituzten langileen arteko arrakala handitzen ari da, 2008.urtetik handitzeko joera izan duena.
- Gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala ere agerizkoa da, arestian esan bezala. Azpimarratzekoa da, emakumeen pertzentil baxuena ez ezik, emakumeen batezbesteko soldata ere batezbesteko soldata orokorraren azpitik egotea. Gizonen kasuan, pertzentil baxueneko soldataren bilakaera soilik kokatzen da batezbesteko soldataren azpitik, baina urteen poderioz, aldea handitzen ari da.
- 25 eta 34 urte arteko gazteak dira batezbesteko soldatari bakoitzeko baino gutxiago jasotzen dutenak. Adinean aurrera eginez, aipatzekoa da 45-54 urte bitarteko langileek batezbesteko soldataren azpitik kobratu dutela urteetan zehar, baina 2019 eta 2020.urteetan goitik kokatu dira. Ikusteke dago joera bilakatzen den edo pandemiak aztoraturiko datua ote den.
- Kanpoko nazionalitatea duten langileen artean, bilakaera nabarmen bat egon da. Izan ere, 2014.urtera arte, kanpoko nazionalitatea zuten langile guztiek batezbesteko soldataren azpitiko ordainsaria jasotzen bazuten, urte honetatik aurrera espainiar estatutik kanpoko nazionalitatea zuten herritarrak batezbesteko soldataren azpitik jaso dute.
- Kontratuen arabera ere, aldea nabarmena da eta kontratu mugagabea duten langileek behin behineko batezbesteko soldata baino ordainsari altuagoak jaso dituzte.


EROSAHALMENA

Inflazioaren eraginez, erosahalmenean galera orokorra gertatu da eta diru-sarrera baxuagoak dituzten bizi unitateetan eragin kaltegarriagoa izaten ari da.

2021.eko erdialdetik, azken lau hamarkadatan ezagutu gabeko prezio igoerarik altuena bizitzen ari gara. Zalantzarik gabe, aurreikuspen guztiak gainditu dira.

Espiral inflazionista ez da gertaera isolatua eta hainbat faktorek eragin dute: pandemiak eragindako osasun larrialdiaren osteko suspertze ekonomikoa, botila-lepoak h egoeraren araberakoa ere, merkatuen berezko mekanismoa baizik. Intentsitatea modu oportunistan handitzen da, ziurgabetasun eta ezegonkortasun handiko egoeratan. Kasu, bizitzen ari garena.

URTEARTEKO KPI-AREN BILAKAERA, NAFARROA GARAIAN



Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI-ak) %11ko urte artekoa izan zuen abuztuan Nafarroa Garaian, irailean %9,80ra jaitsi zen eta urrian beherakada berria izan du %8,40ean kokatuz. Beraz, urteko batezbesteko KPIa oso altu mantenduko da.

Nolanahi ere, adierazi behar dugu prezioen garestitzea Europar Batasun osoaren arazo komuna dela, Europako Banku Zentralak moneta politikaren aldetan harturiko erabakien ondorioa baita. Eb-27 osoko inflazio-tasak maximo historiko berri bat gainditu zuen abuztuan, urte arteko batezbestekoa %10,1ean kokatuz. Herraldeen artean alde handiak daude, estatu bakoitzaren egitura ekonomiko, merkatuaren funtzionamendu edota politika sozioekonomikoek markatuta.

Prezioen igoerak inaktu handiagoa du diru-sarrera baxuko bizi unitateetan

Inflazioa maximo historikoetan egonik, eta ondasun zein zerbitzu guztietan ia modu orokortuan, azpimarratzekoa da elikagaien eta alkoholik gabeko edarien multzoak, etxebizitza gastuak eta hornidurek (elektrizitatea, gasa eta bestelako erregai batzuek) izaniko prezioen igoera Nafarroa Garaian.

URTE ARTEKO PREZIOEN BILAKAERA (%), ONDASUN MULTZO ETA ZERBITZUEN ARABERA. NAFARROA GARAIA		
NAFARROA GARAIA	2022 Urria	2022 Iraila
Indize Orokorra	%8,4	%9,8
Elikadura eta edari ez alkoholdunak	%15,7	%14,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	%3,5	%3,7
Arropa eta zapatak	%6,3	%3,4
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak	%8,8	%20,2
Altzariak, etxerako tresnak eta etxeke ohiko mantenurako tresnak	%9,6	%9,8
Osasuna	%2,1	%2,7
Garraioa	%10,4	%10,6
Komunikazioak	%-2,1	%-2,7
Aisialdia eta Kultura	%4,2	%4,7
Hezkuntza	%2,4	%1,5
Jatetxe eta hotelak	%6,0	%7,1
Bestelako hondasun eta zerbitzuak	%4,2	%4,3

Iturria: INE

Prezioen igoera bereziki handia izaten ari da lehentasunezko produktuetan, eta, horregatik, neurri handiagoan kaltetzen ditu diru-sarrera baxuko bizi unitateak. Azalpena ulerterraza da. Izan ere, ondasun eta zerbitzu horiek kontsumitzea ezinbestekoa da eta horiek ordezkatzeko zaila. Errenta baxuak dituzten bizi unitateak, baliabide gutxiago izanik, ehuneko handiagoa erabili behar dute produktu horiek erosteko.

17

ETXEBIZITZA

Etxebizitza oinarrizko eskubidea den neurrian, herritar guztiontzat bermatua beharko luke. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da eta oinarrizko produktuen prezioak igotzen ari diren honetan, etxebizitza eskuratzea ez dago guztion eskura.

Euriborra, maximo historikoetan

Europako Banku Zentralak (EBZ) inflazioari aurre egiteko aitzakiarekin, moneta politika aldatu eta Euriborra igotzea erabaki zuen modu progresiboan (uztailean %0 - %0,5, irailean %0,5 - %1,25, urrian %1,25etik %2ra). Modu honetan, azaroaren 3an hilabeteko batz bestekoa %2,680an zegoen eta aurreikuspen guztien arabera, urte bukaeran %3ra igo daiteke.


Euriborra bankuen artean dirua mailegatzeko ezartzen den batez besteko interesa da. Beraz, bankuen arteko mailegua garestitzen bada, herritarrei dirua mailegatzeko ezartzen den interesa ere igotzen da; beti ere, kapitala metatzen jarraitzeko helburuarekin.

2022.urtean euriborrak etengabeko gorakada izan du, jarraian dagoen grafikoan argi ikus daitekeen bezala. 2022ko urrian 2008.urteko maximo historikoetara iritsi zen

Sistema kapitalistaren baitan ohiko bilakatu da bankuei mailegua eskatzea etxebizitza eskuratu ahal izateko, adosturiko interesak gehituta ezarritako epean bueltatzeko. Hipoteka bat kontratatzea, alegia. Hipoteka sinatzerako orduan adosten den interesa fijo edo aldakorra izan daiteke. Bada, aldakorra den interes mota horretan eragin zuzena du Euriborrak, euriborrak

duen aldakuntza indizearen arabera izango baita bueltatu behar ditugun interesen hazkundera ere bai.

EURIBORRAREN BILAKAERA (2022)



Iturria: The European Money Markets Institute

Batez besteko hipotekaren hileko kuota 200€ garestiago

Estadistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, hipotekak kalkulatzeko erreferentziako indizearen gorakadak 200 euro inguru garestitzen ditu urrian espainiar estatuan etxebizitza erosteko hileko kuotak, honako ezaugarriak dituen batez besteko mailegu baten: 145.000 eurokoa, 24 urtera bueltatzeko eta % 0,8 eta % 1 arteko diferentzialarekin. Urtean 2.400€ garestiago, 25 urteetan


18

Etxebizitzaren prezioa %6,2a Nafarroan garestitu da

Azken urtean KPI-ak izaniko gorakadak herritarren eguneroko bizitza garestitu du eta higiezin salerosketan eragin zuzena izan du. Ondorioz, metro karratuaren prezioa igo egin da, ia ia hilabetez hilabete.

Proporzioan, Hego Euskal Herriko gorakadarik altuena Nafarroa Garaian jazo da, aurreko urteko urria baino %6,2 garestiago baitago metro karratua (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiako abiapuntuzko prezioa altuagoa zela jakinik eta igoera ez hain altua izan badu ere (%2,4) metro karratua garestiagoa da aipatu hiru lurraldeetan).

ETXEBIZITZA PREZIOAREN BILAKAERA NAFARROA GARAIAN (2022 - €/M²)



Iturria: guk geuk egin, Idealistaren eta Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) datuekin.

Erosahalmenean aipatu dugun bezala, gogora ekarri behar dugu, KPI-aren garestitzearen ondorioz, etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaien prezioa %30,3 igo zen Nafarroa Garaian. Kasu honetan ere, egoera zaurgarriagoan

dauden familiak dira kaltetuenak, diru-sarrera baxuagoak dituzten etxebizitza-unitateek euren gastuen %43 etxebizitzara bideratzen baitituzte.

Alokairua ordaintzeko, soldataren gero eta zati handiagoa behar dugu

Nafarroa Garaiko alokairuen prezioak aztertu ditugu, bertako herritarren soldataren batez besteko garbiarekin alderatuz. Azterketa hau egiteko, Gazteen Euskal Behatokiak argitaraturiko "Etxebizitza emantzipazio-kostua Euskadin" txostenean finkatzen den "gehieneko prezio onargarria" hartu dugu erreferentzia gisa: "zein prezio izan beharko lukeen merkatu libreko etxebizitza batek, hipoteka kuotaren eta alokairuaren hileko errenta, gehienez hileko soldata garbiaren %30a izan dadin"

Jarraian agertzen den taulako estimazioak egiteko, honako erreferentziak baliatu ditugu: 2020.urteko Nafarroako IRPF-aren taula eta %6,35eko kotizazioa erabili ditugu soldata garbia kalkulatzeko; etxebizitza horretan soldata bakarra dagoela kontutan hartu dugu, seme-alabarik gabe; etxebizitzaren azalera 80m²koa izatea.

ALOKAIRUAREN PREZIOA NAFARROA GARAIAN, 2011 – 2020					
HILEAN BATAZ BESTE, NAFARREK ALOKAIRURA BIDERATZEN DUTEN SOLDATA GARBIAREN %					
	€/m ²	Bataz besteko alokairua	Orokorrean %	Emakumeak %	Gizonak %
2011	7,3€	584€	%35,86	%42,96	%31,85
2012	6,7€	536€	%36,76	%44,1	%32,08
2013	6,4€	512€	%36,68	%44,32	%31,83
2014	6,2€	496€	%35,4	%42,57	%31,41
2015	6,3€	504€	%35,17	%41,74	%31,34
2016	6,5€	520€	%34,33	%40,98	%30,94
2017	6,9€	552€	%33,67	%39,19	%30,31
2018	7,7€	616€	%33,63	%37,81	%30,47
2019	8,5€	680€	%32,24	%36,17	%29,45
2020	8,7€	696€	%37,74	%43,33	%34,26
2021	8,9€	712€			
2022	9,3€	744€			

Iturria: guk Idealistaren eta Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) datuekin.

Datuetan ikus daitekeen bezala, alokairu onargarriak "izendatzeko" erabili dugun erreferentziatik oso urrun dago Nafarroa Garaiko herritarrok alokairura bideratzen dugun soldataren proportzioa. Proportzioa are eta handiagoa da emakumeen kasuan, gizonetako baino soldataren proportzio altuagoa bideratzen baitute alokairua ordaintzera.

Alokairuak, etxegabetzen jo puntuan

Ikusmiran-era etxegabetzen inguruko datu ofizialak ekarri ditugu, espainiar estatuko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak publikatzen dituenak. Beraz, soilik agindu judizial baten bidez behartzen diren etxegabetzen datuak jasotzen dira. Jakin badakigu isilean desjabetzeak ere gertatzen direla (alokairu kontratua eteteagatik, alokairuaren kuota berritu eta asumitu ezin duten familiak...), agindu judiziala iritsi aurretik etxebizitza uzten duten familiak. Estatistiketatik kanpo gertatzen diren etxegabetze gehienak alokairuzkoak direla salatu izan du Stop Etxegabetzeak plataformak. Datu ofizialetan, errealitate hau ere islatua gelditzen da, 2021.urtean eginiko desjabetzen %81,4a alokairuzkoa izan baitzen.


LAN MERKATUA – ENPLEGUA

Afiliazioaren bilakaera

Egoera ekonomiko eta soziala gero eta ezegonkorragoa da, bizitzaren garestitzearen eraginez eta Errusiak Ukraina inbaditu ondoren areagotutako ziurgabetasun egoeraren ondorioz. Aurreikuspen ekonomikoek okerrera egin dute eta enplegu sorreran galga gertatu daitekeela pentsatzekoa da.

Gizarte Segurantzako afiliazioa testuinguru horretan kokatu eta ulertu behar da. Izan ere, pandemiaren ondoren egoniko hazkundera apaltzen ari da. Uda amaierako kontratu etenaldiek afiliazioan beherakada ekarri ohi dute; 2022. urteko datuek, ordea, afiliazioaren beherakada urrian ere mantentzen ari dela adierazten dute. Afiliazioaren beherakada joera orokorra ote den ziurtatzeko, datozen hilabeteetako bilakaera aztertu beharko da eta arrazoiak Nafarroa Garaiko lan merkatuan gertatzen ari dena aztertuz ulertu.

ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA. NAFARROA GARAIA



Behin behinekotasun eta partzialtasunak, emakume aurpegia du Nafarroa Garaian


Lan merkatuen azterketari enpleguaren kalitatearen ikuspegitik heldu behar diogu. Hori dela eta, jarraian afiliazioaren kontratazio mota aztertuko dugu. Espainiar estatuko lan erreforma onartu zenetik ia urte bete igaro da eta kontratazio arloko azken berrikuntzak martxoan jarri ziren indarrean. Bada, uste dugu momentua iritsi dela erreformaren eragina aztertzeko, indarrean dauden neurriek lan merkatuan inplementatzen hasiak direlako.

ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA

	2021 - URRIA	%	2022 - URRIA	%	2022 - 2021 URTEARTEKO ALDAKUNTZA
MUGAGABEA - j. OSOA	120.334,3	50,87	133.970,65	55,12	13.636,35
MUGAGABEA - J. PARTZIALA	22.604,15	9,56	28.719,3	11,82	6.115,15
ALDIZKAKO FINKOA	5.572,35	2,36	11.652,15	4,79	6.079,8
BEHIN BEHINEKOA - J. OSOA	45.495,7	19,23	32.982,15	13,57	-12.513,55
BEHIN BEHINEKOA - J. PARTZIALA	23301,8	9,85	15167,3	6,24	-8134,5
FORMAZIOA ETA PRAKTIKAK	2158,1	0,91	2226,7	0,92	68,59
BESTE	17081,1	7,22	18321,5	7,54	1240,4
GUZTIRA	236547,5	100,00	243039,75	100	6492,25

Iturria: Gizarte Segurantza


KONTRATU MOTAREN ARABERA, AFILIAZIOAREN URTE ARTEKO BILAKAERA (2022)



Nafarroa Garaian 2022.urteko urrian 236.547 pertsona zeuden afiliatuta erregimen orokorrean. Eskuartean ditugun datuen arabera, urrian enplegu mugagabea guztizkoaren %71,73a, 2021.urteko epealdi berean baino 8,95 puntu altuagoa. Era berean, nabarmendu behar dugu, Hego Euskal Herriko datua altuagoa dela (%75,5a 2022ko abuztuan); beraz, Nafarroako behin behinekotasun tasa HEH-koaren gainetik dago.

21

BEHIN BEHINEKOTASUN TASA, ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOAREN DATUETAN OINARRITUTA (2022KO URRIA)



Emakumeen behin behinekotasun tasa (%23,28) gizonen behin behinekotasuna (%16,67) baino 6,61 puntu handiagoa.

Informazioa osatzeko, esan behar dugu tasa hauek kalkulatzeko Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko afiliazio zifrak erabili ditugula; beraz, kontraturik ez duten afiliatuen kolektiboa kanpo gelditzen da.

Prekarietatearen mapa osatzeko, lan partzialtasunak kokatu behar dira. Lan modalitate honen erabilera zabaltzen ari da azken urteotan, neurri handi batean teknologia berrien hazkundera eta lan egiteko moduen aldaketaren ondorioz.


Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko afiliazio zifrak balitu ditugu oraingoan ere bai. Modu honetan, afiliaturiko emakumeen %26,31ak lan partziala du, gizonezkoen artean partzialtasuna %10,58a den bitartean. Esan behar dugu, gaur egun nagusiki emakumeei esleituriko enpleguak izan arren, hauen erabilera gizonezkoen artean hedatzen ari dela.

Emakume eta gazteen langabezia tasak gora egin du

Nafarroa Garaiko langabezia tasa %8,99koa da eta pasa den urtetik behera egin du (2021. urriko langabezia tasa %10,70ekoa zen), baina ez langile kolektibo guztietan. Izan ere, emakumeen langabezia tasa % 10,67-koa da (duela urte bete baino 1,41 puntu goitik) eta 20 -24 urte arteko gazteena % 20,20koa (iaz baino 6,2 puntu goitik).

Nazionalitatearen arabera langabezia tasa aztertuz gero, "beste nazionalitate" bateko herritarren langabeziak behera egin arren (%22,40ean gaur egun), alde handia dago Europako nazionalitatea (%6,5) eta Europatik kanpokoa dutenen artean (%32,21).

LANGABEZIA TASA
GENEROA, ADINA ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA (2021-2022)



Iturria: INEren Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Zerbitzuen pisua gero eta handiagoa

Biztanleria Aktiboaren Inkestak ematen duen beste datu bat da aktibo dauden langileak zein sektoretan dauden. Datu hauetatik tiraka, zerbitzu sektoreak lan merkatuan duen pisua handitzen ari dela ondorioztatu daiteke.. Egun, Nafarroa Garaiko langileen %61,4ak zerbitzu sektoreetako enpleguren batean lan egiten du eta handituz doan kopurua dela gaineratu behar dugu (iaz langile aktiboen %58,a baitzen).

Kontrako norabidean aurkitzen dira eraikuntza edota industria, pasa den urtetik honako enplegu galerarekin.

LANGILE AKTIBOEN BANAKETA, SEKTOREAREN ARABERA (%)		
	2022 3.hiruhilabetea	2021 3.hiruhilabetea
Lehen sektorea	%3,1	%3,2
Industria	%25,2	%26,6
Eraikuntza	%5,3	%5,9
Zerbitzuak	%61,4	%58,4
Lehen enplegua bilatzen dutenak edota enplegua utzi duten langabetuak	%5,0	%5,9

Iturria: INE – Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Lan merkatuari buruzko datu hauen atzean, eraldatzen ari den errealitate sozioekonomikoa dago; izan ere, langileok lan baldintza hobeak dituzten sektoreek (eraikuntza edota industria, kasu) gainbeheran dauden bitartean, prekaritate eta ezegonkortasun handia duten sektoreetako enpleguak ugaltzen ari dira, zerbitzuak sektorea kasu. Horretaz gain, gure lurraldearen eredu sozioekonomikoaren burujabetzari erabat lotuta dago eta lan merkatuaren konfigurazioak beste herrialde nahiz estatuekiko menpekotasuna areagotu edota posizio buruaskiagotetan kokatu baikaitzake.

